

## HITZAURREA

### I. Mendeurren aberasgarria

Inazio Loiolakoa eta Joan Gurutzekoa, historia luzeko bi gizon aipagarri. Bi pertsona hauek munduan izateak berak argiz eta itxaropenez, mito antzeko zerbaitez eta mirespenez janzen ditu haien sorlekuak: Euskal Herria eta Gaztela. Orain biak mendeurrean berean uztarturik ageri zaizkigu, 1491-1591: Inazioaren jaiotzako 5. mendeurrena eta Joanen heriotzako 4.a.

Bi pertsona erakargarriren mendeurrenean gaude eta mende liluragarri eta bizi-bizia gogoratzen: XVI. mendea. Ekintza sozio-erlijiosoan, politiko-militarren irakin bizia nabari deneko garaia, lurreko eta izpirituzko mundu berriak aurkitu zireneko garaia, suzko eta izpirituzko armaz burukatu ohi zeneko mendea, gizarteko bazterketak eta goi mailako erantzunak eman zirenekoa, mende istilutsua, baina interesgarria, aberatsa, berrikuntza edo erreforma sozio-erlijiosoak gertatu zirenekoa, aber-tzaletasun joera berrien mendea.

Giro horretan kokaturik, Inazio eta Joan besteen gainera ageri zaizkigu, aldakuntza onak bultzatuz, beti hoherentz: maitasuna eta guztien ona oinarritzat zituen askatasunerantz, gizatasun sakonagoa lortu nahirik, egiaren bila, sorkari guztien iturburu eta helburu den Nazaretako Jesusengan aurkitzen den egiaren bila.

Guk, euskal kulturaren agerpen xume honetatik —*Karmel* aldizkari eta *Karmel* sortatik—, XVI. mendeak eman zituen kulturaren, gizartearen, erlijioaren eta Elizaren bi gizon erraldoi hauen omenaldian esku hartu nahi izan dugu.

Inazio, euskalduna denez gero, Euskal Herria munduan ezaguna izan dadin eragingarririk garrantzitsuena izan da; eta era berean Euskal Herriak mundu osoari egindako ekarpena.

Joan, Gaztelako semea, Avilako Teresaren laguna Karmengo Ordena berriatze-

lanetan eta gizon unibertsal aipagarria dugu. Euskal Herrian bere izpirituzko eta kulturazko mezuagatik lortzen du ere bere eragin handia eta baita karmeldar moja eta fraideen hainbeste komentu eta eliza bertan izateagatik ere.

Euskal Herriak, Joan Gurutzekoaren antzeko, kanpoko eta guztionak diren gizakien mezua entzun eta bereganatu beharra du, haien ondasun harrigarriez aberas-teko. Eta bere baitara begiratu, mundu osoan gorapaitua den Inazioren euskal izaera biziberritu eta sendotu beharra.

Euskal Herria geroago eta gizatiarrago bihur dezakeen elkartrukaketa aberas-garria da hau. Horrela, bere iraganaldi zaharretik abiatuz eta azken hamarkada hauetan bizi dituen zalantzazko eta badaezpadako une txarrak gaindituz, nortasun erakargarria lor dezake.

Bi maisu handi omentzen ditugu:

Inazio, borondate sendoko euskalduna, ekintzailea, guztion onari begira beti, Elizarenganako... eta gizartearenganako maitasunaren eredu.

Joan, bilaketaren gizona, bide ezezagunetarantz eragiten dion barne-deiari jarraitzen diona: egiaren bila dabil etengabe, bere bizitzaren ardatz eta helburu duen Jainkoa aurkitu nahirik. Azkenez, arte eta poesiaren munduaz ere topo egiten du, baita filosofia eta teologiarekin ere. Joan, helbururik gabe, maitasun eta argirik gabe noraezean eta nahigabez ari den gaur eguneko gizakiarentzat, bilaketaren gizona da.

XVI. mendean aldakuntzak hain sakonak izan baziren, gaur eguneko munduan teknikaren aurrerapen itxaropentsu baina era berean giza izateaz gabetzen gaituenen artean; kanpotik inoiz baino aberatsago eta barrutik inoiz baino pobregago den Europa honetan; pentsaera marxista-leninistadun herrialde totalitarioen (euren historian hainbeste zorigaitz eta heriotze, hainbeste gezur eta itxurakeria, ia guztiek aitortzen duten hondamen sozial, moral-etiko, ekonomiko eta politiko... eragin, eroin eta jasanik) porrota ezagutu duen azken urteotako Europan, pertsonaren aurkako eraso inoiz baino sakonagoa da, gizartean eta politikan inoiz baino gartsuago babesten bada ere. Beraz, une oso interesgarrian eta kontraesanez betekoan bizi gara... gizakia geroago eta hutsalago, pobregago ta ustelago bihurtzen duen atseginkeriaz jositako kapitalis-moan.

Oraingo mundu honen aurrean agertzen dira bi gizon bikainok, Inazio Loiolakoa eta Joan Gurutzekoa, euren mezu eta bizitza aberasgarriekin. Haien giza bizitzarako gauzarik beharrezkoenetarikoa dakarkio gaurko munduari eta, Viktor Frankl-en eritziz, berorren falta gaur egun gaitzik larrienetarikoa dena: sena dakarkio, bizitza sena, egiaren sena, bizidunak elkartean bizi izateko duen sena, Jainkoagana... eta gizakia bera den bezala ezagutzera daraman izadiaren sena.

Giza kualitate edo dohain apartak zituzten bi gizon gogoratzen ditugu gaur egun. Baina egiaren eta historiaren aurka ez joateko, ez dugu ahaztu behar honako hau: *kualitate hauek kristau esperientziak bultzatuak, zuzpertzak eta goi-mailara jasoak izan zirela. (Kualitateak harremanetan, etengabeko elkarrekiko erlazioetan garatzen dira eta elkartasunezko eta anaitasunezko harreman horietan, elkarren ona eta guztien ona bilatzea, kristautasunaren helburu finkoetariko bat da).*

Barneko kristau esperientzia hori gabe zertan amaituko ote ziren Joan Yepes-en giza kualitateak? (artista eta poeta, pentsalari, filosofo eta teologo gisa lortu zuen mailaren erdirik lortuko ote zuen?). Inaziori buruz ere gogoeta berdintsua egin genezake: giza harremanetarako zuen erraztasuna, berekoikeriaz jokatzuz, ez ote zuen alferrikalduko? Eta zer esan giza kualitatez haien aberats zen Avilako Teresaz?; hain ederra, atsegina eta argia izanik, harritzekoa ote litzateke jauntxo eta haundikiak liluritzen eta haundi-maundien arteko harropuzkerietan aritzea? Galdera hauek pentsatzera eragin behar liekete gaur eguneko gizon-emakumeei Euskal Herrian.

*Kristau izanez eta halaxe bizi izanez, Inazio eta Joanengan ikusi dugunez (biak oso-osoan Jainkoari emanak izanik), giza izatea goi-mailara jasotzen da: pentsatzean eta hitz egitean, bizimoduan eta harremanetan, kualitateak garatzean eta haietaz baliatzean... Kristau izateak berez-berezkoa bait du besteenganako irekitasuna: lagun urkoaganako irekitasuna eta Jainkoaganakoa, harreman edo erlazio horrek bere goren maila Jainkoarengan izanik, isiltasun guztiz komunikagarrian, Joan Gurutzekoak nahiz Martin Buber Viennako filosofo-teologo judutarrak esango luketenez.*

Omenaldi honen bidez zerbitzu itxaropentsua egin nahi diogu biziaren eta egiaren, askatasun eta bakearen, kristautasun eta gizatasunaren..., zorion eta alaitasunaren beharrean den euskal gizarte eta kulturari.

## II. Erabilitako gaiak eta idazlanen originaltasuna bizkuntzaren aldetik

Idazlanak hiru sailetan bereizirik daude: a) Bi santuen Mendeurrena aurkezten da euren garaian kokatuz (1491-1591). b) Haien bizitza eta lanak aztertzen dituzten 16 idazlan datoz gero. c) Euskal Herria eta euskal kulturari begira egindako 9 idazlanez bukatzen da.

Bai muinez eta bai estiloz era askotako idazlanak dira; horregatik irakurle askorentzat onuragarri gerta daitezkeelakoan gaude.

Hizkuntzaren originaltasunari dagokionez ere zerbait argitu behar dugu. Jakina denez, omenaldi honetan esku hartu duten gehienak, euskaldunak izan dira. Euskaraz idatzitako idazlan originalak 20 dira; gaztelaniaz idatzitakoak 7 eta 1 frantsesez, ingelesez eta alemanez...

### III. Eskerrona

*KARMEL*-ek Inazio Loiolakoari eta Joan Gurutzekoari eskaintzen dien omenaldi honetan nazio ezberdinetako 30 lagunek esku hartu dute eta guztiei neure eskerrona agertu beharrean naiz. Hauetatik gehienak, jakina, Karmeldarrak eta Josulagunak dira. Baina badira beste batzu ere: J.M. Uriarte (Bilboko gotzain laguntzailea), J. Ig. Telletxea, Edorta Kortadi, X. Mendiguren, Ana Urkiza...

Berarizko eskerrona hainbat idazlan euskarara itzuli dituzten Patxi Uribarren eta Luis Baraiazarra-ri, Andres Urrutia eta Bego Montorio ahaztu gabe. Lino Akesolo-k aipamen berezia merezi du, hiru idazlan idatziz gainera, alemanetik bat itzuli eta beste hainbat gauzatan, inprimategiko hutsak zuzentzen bereziki, laguntza eskergaitza eskaini duelako. Ez dut ahazturik idazlanen laburpenak frantsesera itzuli dituen Teresa, Baionako lekaiamea ere.

Laguntzaile hauen artean lanbide ezberdinetako pertsonak daude: historilari ospetsuak, filosofo-teologoak, literatura-idazleak, itzultzaileak, elizgizonak, euskalariak, kazetariak, arteko kritikariak eta abar.

Laguntzaile guzti hauen urgazpenaz bi gizon unibertsal hauen omenaldia aurkezten dut, Inazio Loiolakoarena (1491) eta Joan Gurutzekoarena (1591), Inazio euskaldunak munduari egindako ekarpen gisa eta Gaztelako seme batek, Joan Gurutzekoak, Euskal Herriari eta beronen kulturari egindako ekarpen gisa.

JULEN URKIZA